

## L I T E R A T U R - E U S K E R A

Mitxelena jaunak, euskaltzain jakintsu ta buru-argiak' Oihenart euskal-poeta goienetakoari buruz' itzaldi eder bat egiña dú. *Euskaltzaindia-ren lanak* deritzaion liburuxka baten argitaratu ere báí, 1953g. urtean.

Liburuxka orren banako bat bialdu zidan, aspalditxo, egilleak berak. Asko estímatu nuan.

Gogo eta arreta aundiz irákurri det Mitxelena jaunaren euskal-lan ori: baliozko deritzaidalako, batetik; bestetik, nitzaz ere iztxo batzu ezarriak ditalako.

Iztxo oietako batzu' goragarri díut (goragarriegi noski); beste batzu' erantzuna me-rezi duteneko. Erantzun au' lenago bear nukean idatzi, baiña astirik ez; barka bézait, beraz, Mitxelena jaunak.

Ona emen asteko'

### Lenbiziko erantzuna

Euskal *Syntaxis*eri buruz ari dalarik' au dio Mitxelena adiskideak:

«Altube jaunak finkatutako legeak, euskerak gorde bear lituzkeanak izango dira agian, baiña ez euskerak gorde edo gordetzen dituenak. Eztira, geienez ere, euskerarenak, zenbait dialekturenak baizik».

Euskaldunek, lege oik, beti eztituzte «gorde edo gordetzen», ez, eta orrexegaitik éskatu zidaten eta nik idatzi *Erderismos* liburua (ikusí onen *Prologoa*). Baiña lege-aussteok eztira «dialektuzkoak», euskalki guzietakoak baizik: idatz-euskeraz' aintxiñatik; mintza-euskeraz' orainsuagotik, eta zori-txarrez, geroago ta geiago.

Ala-ta-gutziz ere, mintza-euskerak (uri erdi-erdaldunduetan izan ezik), geien-geienez, ederki górde oi ditu legeok. Au esan al izateko' nik, neronek, zorionez edo zoritxarrez, euskalki guzietako errietan bizi bearra, edo beintzat, erri oietako euskaldunekin izketan luzaro ekin bearra ízan det; eta, egia esan, euskal-syntaxis delako legeetan' eztet aurkitu benetako alderik, alegia, *Erderismosen* bertan oart-arazi enuan alderik; eta nere belarriok, ori nabari al izateko, iratzarriegi ere egiñak ditut.

### Bigarren erantzuna

Nerekiko syntaxis lege oik dialektuzkoak baizik eztiralakoari' au gaiñerutzen dio Mitxelena-k:

«Eta dialektu oietan ere zearo eta osoro betetzen ez tirela esan bearrik ez. ¿Zorrotzago eta zeatzago betetzen zirala leen? Bai, bear bada, baiña balizko oleak burnirik egiten eztuen bezela, uste ori ere uste utsa da, eta erdia ustel, dakigunez».

Nik finkatutako syntaxis-legeen kontrako zerok' Mitxelena jaunak, zeatzasun gutxitxoez agértzen dizkigu: len' «zenbait dialekturenak baizik» ez tirela legeok, esan digu, baiña dialektuok zeintzuk ziran eta eztiran' ori ez; orain' lege beroien jatortasuna edo leentasuna dúdatzen du, baiña zeintzuk lege jartor eta zeintzuk ez' au eztigu esaten. Zalantza ontan' gaitz déit nik nere erantzute-lana eta nai nukean baiño luzeagoko.

Dana dala, agertu dítzadan asteko, nik neronek nagusienentzat emandako syntaxis-legeak.

1.<sup>o</sup> *LEGEA*. - Euskeraz, galdetze-itzez eta erantzute-itzez' syntaxis berdiña dute, onela:

- ¿NOR da?  
- AITA da.

Lege au, nik dakidanez, Azkue-k agertu zuan leenik, eta esan-bearrrik ez, erdal-jokeraz kontrakoa dégu.

Lege orren ondorengo bezela' balio aundiko beste au dégu euskeraz: bi, iru, lau ta gaiago itzeko esakuntan' importantzirik geinco itza' argi ta bereziki markatzen degula; ontarako, itz ori (galdetze-itz ura bezelaxe) berbo-itzaren aurrean jartzea aski dégu, olaxe:

«IPUI-LIBURUA kéndu dit gaur, aitak».  
«Ipui-liburua' AITAK kéndu dit, gaur».  
«GAUR kéndu dit aitak, ipui-liburua».  
«(Atzo zuk eman zenidan) ipui-liburua' KENDU égin dit gaur aitak».

Olako itz, bereziz markatuari' «elemento inquirido» derizkio, egoki-egoki, Azkue-k, bere Euskal-izkindean.

2.<sup>a</sup> *LEGEA*. - Au' «Oración subordinada» ta «conjuntiva» direlakoena dégu. Oietan, *berbo-itza* ta esakunearen gramatikatiar ezaugarria' azken buruan jártzen ditugu euskeraz; onelaxe:

«Au, ori edo bestea gerta dedi-NEAN».  
«Au, ori ta bestea, onela gertatu zira-LAKO.»

Esakune oik, erderaz, orren itxulitarako syntaxis dúte, onela:

«CUÁNDO ocurra esto, eso o lo otro.»  
«PORQUE esto, eso y lo otro ocurrieron así.»

Azkue-k, bere Morfología liburuaren 354 g. orrialdean' (1) J. A. Moguel-en ejemplu au árgertzen digu:

«Nik erein-ARREN galgaraua soloan...» (Peru-Ab. 68-10)

Ejemplu onezaz' au dfo Azkue-k berak:

«Mejor construído estaría: «Nik soloan galgaraua erein-ARREN...» pues los conjuntivos, por su oficio de poner en relación una frase con otra, deben como los mojonos ocupar el extremo de su jurisdicción».

Au da, euskerak' «el extremo posterior o final de su jurisdicción»; erderak ordea' «el extremo anterior o inicial de su jurisdicción».

Mogel-ek itxu-mustuan járraitu zion or erdal-joskera oni:

«AUNQUE yo siembre grano de trigo en la heredad...»  
«Nik erein-ARREN galgaraua soloan...»

Baldin Mogel bezelako euskal-idazlea, erdal-joskerak, orren errez bereganatzen badu' beste idazle askok, pekatu berori egitea, ezta miresteko, batez ere esakune luzeagoetan.

Orraitio, Axular-ek, bere Guero liburu famatua' subordinada oitako esakune luze-luze batez ásten du, eta berau' txit legezki búkatzen du, ikus:

«Gure lanngoikoak, munduko bertze gauza guztien ondoan, gizona bera, bere gainki, bere imaginara eta idarira, batere bekatuak, eta bekatuen kutsurik ere gabe, antz donu, dohain, eta abantail suertez dotaturik égin zue-NEAN (ibeni zuen berehala (...) lurreko parabisuan)».

(1) Azkue, Morfología Vasca. Bilbao, 1.925 (Euskaltzaindiak argitaratua).

3.<sup>a</sup> *LEGEA*. - Oración subordinada direlako oik, batzen diranean' au da, bi, iru lau edo gaiago berbo-itz, elkar kateatuta agertu oi diranean' berbo-itzok, erderak erreskadatu oi dituanex-itxulitara, goikoz-bera, terrokatu oi dju euskerak.

Axular-en azkenengo esakune luzea ere' oitarikoxca degu, bi berbo-itz katiatuz bukatzen baita:

«dotaturik... égin zueNEAN».

(Or ditugu biok erdal-joskeraz-kontra ordenatuta).

Ona emen ejemplu errexago batzu:

1) SIN saber                    2) QUE es la devoción.  
2) Dehobia zer deN        1) jakin GABEZ.

(Esakune au, Mendiburu-k erdal-joskeraz idatzi zualarik' Orixe euskal-idazle famatuak zuzendu zuan (RIEV. IX-13)

1) CON decir            2) QUE venga pronto    3) A verme'...  
3) ni ikusteRA        2) azkar etortzeKO    1) esanAZ' (aski duzu)

Urtengo ejemplu au' Erderismosen 144 g. or. agertu nuan (2):

Erderaz

«(Puedes estimar)  
1) QUE has perdido  
2) el tiempo QUE se te transcurre  
3) SIN QUE hayas hecho algo bueno  
4) y SIN QUE notes  
5) SI te has mejorado o no».

Euskeraz

5) «Hobetu zareNZ  
4) sentitu GABE  
3) eta zerbait ontasun égin GABE  
2) iragaten zaitzuN denbora  
(estima ezazu)  
1) galdu duzuLA».

(Axular, «Guero», 161 g. or.) (3)

Oik bezelako kateatu-esakuntan ere' kate maila bakoitza luzeago' eta erdalkerira erortzeko arrisku gaiago.

Orra or euskal-syntaxisen nere ustezko iru lege nagusienak. Eta irurok, ez tira dialektuzkoak, euskera osoarenak baizik.

Lege oik len «zorrotzago eta zeatzago betetzen zirela» uste izatea' «uete utsa» dála dirausku Mitxelena-k, beraz «erdi-ustela».

Nire ustez ordea, lege oien aintziñatasuna' jatoritasuna' egirian dégu.

¿Zein degu besterik, lege oien kontra? Erdal-joskera legea; au gogait eragiteko aña ejemplu ugari egizatua degu Erderismos liburuan.

Or ditugu beraz, aurrez-aurre, bi syntaxis-lege: 1.<sup>o</sup> erderarena, eskoletan eta liburuetan eta ikaskuntza guztietan gure muiñetaragiño sartu nairik ari zaigun erderarena; 2.<sup>a</sup>, orren guziz kontrakoa, itxulitarakoa, etsai indartsu orrek égin dion eta egiten dion gudaketa gogor-eta-guziz ere' oraindik jatoriki bizi zaiguna, ots, euskerarena. An ditugu, au' egizatzeke ere' Erderismosen bertan izentatu nituan ainbat euskal-idazle: Agirre, Arrue, Azkue, Eguzkitza, Lekuona, Orixe, Orkaiztegi, Otxolua, Zinkunegi...; jarri dezagun oien artean

(2) Altube, Erderismos, Bermeo, 1930 (Euskaltzaindiak argitaratua).

(3) Axular, Guero, Bordelen, MDCXLIII, pa. 161.

Mitxelena bera ere. Idazle guziok, esateko utsik egin gabe járraitzen dituzte euskal-joskera nagusienentzako legeok.

Euskal-idazle oik, Euskalerriko lau puntetan jaiok eta bizi-izanak dítugu. ¿Nola, beraz, guziok, euskal-joskera berdiña?

Azkue-k esana du: euskal-irakaslerik aundiena' bere ama izán zuala. Azkueren eskola -lege ori járraitu dute, agian, aitatu ditudan beste euskal-idazle guziok ere: erdera eta erdal-liburu ta irakasketak begi-aurretik kentzen alegindu' eta guraso-zarrak ártu zituzten maixutzat.

Eta guraso zarrok, beurok ere, elkar-itzeztu gabetanik, ¿nola irakatsi digute eskola berdiña? ¿nola erdal-etsai gogor orren kontrakoa?

Mirari oiek, esplikazio bat baizik ez tute: izan dégula izkuntza-itur-buru bat, zarrez, Jaungoikoak baizik ez tute noiztikako bat, gure arbasoen-arbasorik urrutienetakoetatik asi' ta gaurko euskaldunotaragiño, agortu gabe, ur gardena eman digun itur-buru bat...

Gure usteok' euskal-joskerarekiko jatortasun edo aintxiñatasunari buruzko usteok' ez dirateke, beraz, «uste-uts» eta «erdi-ustel».

### Iragarren Erantzuna

Mitxelena jaunak aurkezten digun irugarren jardespina, auxe degu:

«Eta, axularrek beintzat geiago begira bear luketena, lege oiek ez tira literatur-izkuntzarenak: erri izkuntzarenak dira uts-utsik».

Uts-utsik ez; len esan dedanez, goiengetarikotzat ditugun euskal-idazle askoen literaturan ere' zeat eta errespetuki jarraituak baitira legeok.

Onela járraitzen du Mitxelena-k:

«Literatur-izkuntzan zein den itz eta orazioen lekua, banan banako estatistikak bakarrik erakus lezake. Aldez aurretik esan genezake, ordea, beldurrik gabe, estatistika orrek agertuko lituzkean legeak ez tirela Altube jaunarenak izango».

¿Altube jaunaren legeak? Mitxelena jaunak, itz oiezaz, ezta esan nai, legeok, Altube-k, bere-burutik atereak diranik. Baiña nik, neronek, naiago nuke, itz oien ordeaz, beste onakook erabiltzea: *Euskal-joskera legeak*; edo au nai ezik' *guraso zarrek irakatsi dizki-guten legeak*; edo *erderaz-itxulitarako legeak*; edo *erderak ito bearrez darabilzkigun syntaxis legeak*; eta abar.

Mitxelena jaunak nai luken estatistika orrek' au beár liguke, beraz, erabaki: Euskal-idazleek, *erdal-syntaxisen iduriko* dan euskal-joskera, ala *erdal-itxulitarakoa*, ¿zein darabilte geiago?

Dana-dala, Mitxelena-k aipatu digun estatistika' nik ez tet ongi ulertzen; nik ez takit, nork, noiz, nun, eta nolako arauz egiteko gauza dateken. Baiña ateraldi orrek' auxe bai, erakutsi dit: or, elkar-aitu eziñezko zerbait badégula; ona emen zer:

Estatistika orrek, Mitxelena jaunaren alde ta nire kontrako erakutsirik agiriena, aundiena ta zigurrena' jaun berorren idazkietan aurkitu bear lukeala.

Aor bada, ta nik, erantzuten ari natzaion Mitxelena-ren idazki ortan ere' ez tet billatzen ezer, esateko aundirik, nik berridatzitako iru syntaxis lege aien kontra. Eredutzat' lege oik gutxien austen dituzten idazleen eredutzat' or, gorago, izentatu dítut dozenaren bat idazle; bada, Mitxelena jauna, oien artean járra det eta jártzen det nik. Onen idazkian, beste oienetan baiño uts-egite geiago aurkitzea' gaitz génuke; alegia, nik nagusitzat agertu ditudan iru euskal-syntaxis lege aien kontrako uts-egiteak.

Badegu or, beraz, len esan dedan bezela, elkar-aitu eziñezko zerbait.

### Laugaren erantzuna

Mitxelena jaunak, aurreragoko itz aiei' au gaineratzen die:

«Ez al digute erakutsi gauza bat dela erri-izkuntza eta bestea, oso bestea gero, kultur-izkuntza?»

Bai, bai, egia; nik neronek ere maiz esan bearra izan dedan egia. Baiña kultur-izkuntzak' erri-izkuntza, ezta, alegiñez, ezetsi bear, baztertu bear, erdeiñatu bear, zertu baizik: gauzak zeatzago ta argiago esan al izateko' gaitu, aberatsagotu; erri-erriak atxeman ezin ditzaken goi-pentsamentu edo-ta ideia gaitzak esplikatu al izateko' obeagotu, apaindu, zeatztiartu.

Baiña, gure artean, ezta olako askorik gertatu. Obeki esateko, nik *Erderismos* liburuan gaitzetsi nituan erderakadek' eztiote euskerari ekarri, ta ekarten aal ere, olako obe-kuntzarik. Esate baterako, Azkue-k eta Orixe-k (eta nik *bigarren eta irugarren syntaxis-lege nagusiez* ari nintzalarik) denuntziaturiko erderakadek, eztiote literatur-euskerari iñondik iñorako obekuntzarik ezartzen; eta erderakada oik dira, Mogel-ek eta Mendiburu-k bezela, idazle askok geien botatzen dituzten erderakadak.

Erdaldunek, beuren aldetik, oitariko beuren syntaxis-legeak' (gureen itxulitarakoak') ez tizute iñoiz austen, irri egiteko izan ezik (ikus, au, *Erderismosen* 147 or.).

¿Euskal idazleek (geien-geienak erdal eskola ta liburuetan ikasiak) maiz austen dituztela, esan dedan bezela, eta txarrago deguna, erri-izkuntzan ere (batez-ere, uri erdi-erdaldunduetan) gaitz ori, sartzen ari zaigula? Penagarria: baiña euskaldun ikasiek (batez ere apaizek, eliz-itzaldietan), euskal-eskolek, eta geienik, Euskaltzaindiak' zazpi alegiñak egin bear lituzkete gaitz ori sendatzen edo geldi-arazten.

Euskera kultur-izkuntzara eragi nai dutenek ere bai, eta ez gutxién, zerren-eta gaitz orrek, euskerak dituan balio-baliozko erremintak moztu, naspillatu ta gauzeztandu baizik ezpaitu egiten.

Mitxelena jaunak, beste gauza batzu ditu, ai-danean, ardura geiagoko: Axularrek eta Oihenart-ek bezela, «latin eredura euskera egokitu» bearreko ardurak. Baiña utzi dezagun autu au geroagorako.

### Bostgarren erantzuna

Geiegizko garbikeriaz ari dalarik' au dirausku Mitxelena-k:

«Ur uts-utsak edateko balio ez tuten bezela, ezta euskal-joskera uts-uts orrek ere gogoz irakurtzeko edo entzuteko».

Nik, neronek, ez tet iñoiz esan edo aditzen eman olako geiegikeririk, «Euskal-joskera uts-utsa» aski degula' ez, baiña naikoa ez tala bai, argi ta ugariki aditzen eman det.

Asmo orrexez, euskal-joskerari dagozkion *iru lege* aiez gainera' beste *arau* batzu ere agertuak dítut nik, oik *ez beti jarraitu bearrezko lege* bezela, *aukeragarritzko* baizik, ots, esakuneak argiagotu al izateko' on derizkiedalako baizik.

Ona emen oietariko batzu:

1.º ARAUA.—Geroago' *Seigarren erantzunean* Axular-ek ari galarik' aipatu ta ontzat-ematzen dedan erdal-syntaxis-*arau ura*, *anforiko* direlako itzez antolatzeko ura.

2.º ARAUA.—Au, *Erderismos* liburuan bertan dégu agertua, 296 gn. orrialdean asi' ta 300 garreneragiño, ots, bost orrialde aundi-aunditan. Ona emen, laburki, zer nion:

Erriak bere-bere dituan eundaka ta eundaka erderatiko itz, erabili nai eztituan euskal-literaturak' eztukeala aurrerapiderik, ezta bizitzarik ere.

Ori' erderatiko *itzen* alde.

Baiña erderatiko *syntaxis*, *gramatikaki* ta abarrerri buruz ere ekin nion **Erderismosen** bertan. Oitariko erderakadaez' au agértu nuan: Euskal'erri guzian edo geien-geien errikoituak diralarik' ontzat eman bearrik géntuala: batzu' beti; beste batzu' maiz; eta beste batzu' zalantzan utzi nituan. Zer guzi oik' **Erderismosen** sakabanaturik áurkitzen dira, onako orrialdeetan:

*Syntaxis* legeai dagozkienek: 11-50-146-191-201-220-229...

*Conjuntivos*, *Dicciones* ta abar: 182-216-221...

*Gramatika*-erderakadak' *iztegi*-koak baiño askoz gutxiago dítugu, zorionez, batez ere euskaldun-utsetan, euskera beste izkuntzarik eztakienetan. Izan ere, *gramatika*-oiturak, *iztegi*-koak baiño gaitzago baitira aldatzen; gaitzago, oraindik, *gramatikolarien naikeriz* aldatzen. Gai oneri dagokiola' au dio **Michael Bréal** izkuntzalari famatuak:

«Itz-elkartze-legeak aldatzea' lege oiezko esakuneak aldatzea' gauza biziai ikutzea da; arbasoek, milla unkitze eta langintzaz bilduta utzi dizkiguten irabaziai' jazartzea» (4).

3.<sup>a</sup> ARAUA.—Onako au' **Erderismosen** 166 ta 167 g. orrialdeetan ágertu nuan, Azkue-k bere **Euskal-Izkindean** aipatzen duan arau batezaz ari nintzalarik. An idatzi nuan guzia' urrenge itz oietan ágertzen nuan, laburki:

«En las traducciones de textos erdéricos, es recomendable, como primera providencia, desarticular, subdividir y reducir a varias cláusulas más cortas los sintagmas, frases y períodos castellanos excesivamente largos, antes de proceder a su versión al euskera».

*Arotzarena*, euskal-idazle jatorrak ere' auxe dio:

«Le basque ne supporte guère la phrase complexe aux multiples subordonnées s'emboitant les unes les autres. Sa période oratoire est différente de celles qu'affectionnent les langues romanes.

La difficulté consistera à couper la phrase, à la desarticuler, sans pour cela briser l'élan oratoire» (5).

4.<sup>a</sup> ARAUA.—Onetaz' **Erderismosen** 18-tik eta 21 garreneragiñoko orrialdeetan ari izan nintzalarik' auxe nion: **G. Giménez Hermosilla**-k gaztelera-zko idazleai' onako au irakasten diela:

«Cuando hay una cláusula de miembros desiguales, déjese para el último el más largo, si las circunstancias lo permiten».

Arau onen zegaitikoa luze-zamar estudiatu ta gero' *euskerarentzat*, zer ortan ere, kontra-legea génuala egokigarrien ikusi genuan; orrexegaitik, au idatzi nuan:

«En una oración de miembros desiguales, colóquese *al principio* el más largo (...) si las circunstancias lo permiten»...

Oik eta oien iduriko ideiak (jarraitu bearrezko *legeez* gaiñera, aukeragarritzko ditugun *arau-enak*) an-or-emen, maiz agertu ditudalarik' bazukean, Mitxelena jaunak, motiburik asko nere egiazko iritziak ezagutzeko. Etzukean, beraz, eskubiderik «euskal-joskera uts-utsezko» oben ura denuntziatu' eta, astunagotzearren, itz oik gaiñeratzeko:

«Nabarbenago oraindik: euskal-adimenarentzat ez ba'da ere -eta eztakit orrelako entelekiarik inon arki ote ditekene-, ots atsegiñagoa duela euskal-belarrarentzat Axular'en prosak Altube'k eredutzat autetsi dizkigun zenbait zatirenak baiño».

¡Ederki, ederki!... Baiña olako esate puztuek eta zeatz-tasun gabekoez' eztingute ezer ere probatzen. Ezer probatzekotan' konparagarri diran gauzak argi ta soillik beár litezke presentatu; kasu ontan, nik defenditu izan ditudan *lege* ta *arau* guziez moldaturikako idatz-zati bat' eta aurrez-aurre, idatz zati bera, *lege* ta *arau* oik gutxi-asko baztertu' eta ordeazko beste batzuez antolatuta.

*Lege* ta *arau* guziez, ésan det, zerren-eta, *sigur bainogo*: baldin «Altube'k eredutzat autetsi»tako idatz-zatiren bat Mitxelena-k mingoitze aurkitzen badu' idatz-zati orrek, ez-dítuala, lege ta arau guziok jarraitzen edo-ta aintzat artzen. Idatz-zati ori «eredutzat autetsi» nézakean, euskal-syntaxis legeren bat (besteak ixilik-utzita) egiztatzeko; zer ortarako, idatz-zati ura, egokia zatekealarik' enukean, beingoz, *ots-atsegiña* ala *mingoitza* ote zuan ardura aundirik artzerik.

Ola izan ezik ere ¿zer mirari, nik agerturiko idatz-zati ugari-ugarietan (**Erderismosen** bertan, irureunenbat bai) Axular-en prosaz konparagarri eztiran batzu aurkitzea?

Mitxelena jaunaren ateraldi ori bezelakoek' ezture (diot berriz) ezer ere probatzen:

Itzak ozenak.

Utsik barrenak.

### Seigarren erantzuna

Len, geroagorako (oraingoxe alegia) utzi ditudan Mitxelena jaunaren itzak' ona emen:

«Axular-ek eta Oihenart-ek, latin eredura euskera egokitu bearrean ari zirenean, uste zuten, zuzen noski, etzirela euskera naaspiltzen eta zikitzen ari, aberasten eta gaiagotzen baizik».

¿Egiteko ortan, beti ongi jokatu ote zuten? Lan gaitza, arrisku aundiko lana, batez ere, aien garaian, euskal gramatikazko estudiantak, ain atzeratuki zituztelarik.

Dana-dala, «latin eredura euskera egokitu bearrean» egindako lan oien ejenplutzat edo' Oihenart-eren bertso goraiagarri batzu erákusten dizkigu Mitxelena jaunak; bertso oik' **anatoriko** direlako itz batzuez eta **bait**-berbo-aurrizkiaz syntaxistuen eredu ditugu.

Orra bada: oitariko esakuneen autua' Mitxelenak zirikatuta baiño lenago ere erabilia det nik.

Au egiztatzeko' orain bederatzi urte idatzi nuan zer bat, ementxe, itzez-itz kopia-tuko det:

«Otro morfema (nion) de utilidad indiscutible, es el prefijo BAIT- (de los euskalkis orientales), afortunadamente, empleado (también) en gran parte de Guipuzcoa, aunque en la parte que va hacia Goierri es sustituido en general por el suñjo -TA; así mientras hacia Beterri se dice:

«Goazen etxera, euria BAITa (o BAI-da)»,  
hacia Goierri se dice:

«Goazen etxera, euria da-TA».

Basta leer los textos de los escritores continentales para apreciar la soltura, la gracia y la expresión que da a la frase euskérica el uso corriente de tal prefijo BAIT-; por lo cual sería recomendable su generalización en el euskera común.

Hay otra razón que encarece la utilidad del uso del prefijo cuestionando. Veámosla.

(4) M. Bréal, *Essai de Sémantique*, p. 297.

(5) *Arotzarena*, *Le problème de la traduction par Sauveur Arotzarena*, Cure Herria, 1950, p. 150.

Hace ya una cuarentena de años, un culto escritor guipuzcoano, el sacerdote señor Orkaiztegi, se ensañó contra el giro erdérico que desde entonces se llama el *zeñismo*, giro del que se había hecho un empleo abusivo, especialmente en cierto catecismo de la Doctrina Cristiana, escrito en un guipuzcoano estafalario. Así, por ejemplo, en el pasaje del Credo, que decía: «Jesu-kristo gure jauna, zeña konsebitu zan Espiritu Santuaren graziaz eta birtutez».

Pero en la reprobación de tal *zeñismo* hemos ido demasiado lejos muchos *euskalzales* peninsulares (sin exceptuar el que escribe estas líneas).

La construcción gramatical a la que se le aplicó despectivamente el nombre de *zeñismo* consiste en emplear los inquisitivos *Zein, Zer, Nor, Noiz, Nuz...* no propiamente en su verdadera función indagatoria o interrogativa, sino en la llamada por algunos lingüistas *anafórica*, vale decir como pronombres o adverbios relativos, que caracterizan en las lenguas que nos rodean casi todas las oraciones subordinadas construídas con verbo conjugado; así en ejemplos como:

- «Sea *cual* fuere»
- «El día en *que* te ví».
- «La persona a *quien* hablé»,
- «La casa *donde* nació», etc.

Ordinariamente esta clase de dicciones, sobre todo las relativamente breves, pueden y deben construirse en euskera, como se sabe, sin recurrir a tales interrogativos anafóricos; así el euskaldun traduce, más o menos perfectamente, las precedentes frases castellanas, en la siguiente forma:

- «Dana dala» o «Dana dalakoa»
- «Ikusi zindudan eguna»
- «Itz egin nion gizona»
- «Jaio zan etxea»

Pero hay frases complejas en las que la *construcción popular* (y esto ocurre más o menos en todos los idiomas) no llega a satisfacer las condiciones de claridad necesarias.

Axular por ejemplo, que hace un empleo abusivo (hay que reconocerlo) de los pronombres y adverbios anafóricos, se sirve de ellos también en casos suficientemente justificados por el deseo de procurar una clara expresión de sus ideas; así en la siguiente frase:

«Munduko gauza guztiak, kondenatzen dute alferra; *zeren* hartaz bertze guziak enplegatzen BAIT-ute bere denbora, *zertako* egiñak BAIT-ira hartan» (6). Todas las cosas del mundo condenan al vago; *porque* todas menos él emplean su tiempo en aquello *para lo cual* fueron hechas.

Para muchos euskaldunes quizá resultaría más clara la segunda frase de ese texto de Axular, invirtiendo así algunos de sus términos

«... *zeren* hartaz bertze guztiak, *zertako* egiñak BAIT-ira hartan enplegatzen BAIT-ute bere denbora. (...)

Está a la vista que el pueblo no acude en sus conversaciones a construcciones tan complicadas; él expresa las ideas de este género dislocándolas y desdoblándolas en forma de poder manifestarlas en dos o tres frases más cortas.

El Príncipe Luis Luciano Bonaparte había escrito sobre esta cuestión, que los pronombres relativos «eran desconocidos en el vasco primitivo». A esto contestó J. Vinson como sigue:

(6) Axular ibid. p. 54

«Ese caso no es especial del euskera; es que el indo-europeo prototipo, l'*Indogermanische Ursprache*, tenía pronombres relativos? El empleo de esos pronombres supone una sintaxis ya complicada, una cultura moral relativamente superior, una educación en alguna suerte literaria, lo que no es ciertamente el caso de los pueblos primitivos» (7)

Análogamente se expresan los lingüistas más modernos, tales como Vendryès y Darmesteter.

Este último escribe:

«La sintaxis de la lengua escrita es la parte del lenguaje que sufre lo más fácilmente la marca del escritor, pero lo más frecuentemente la sintaxis de la lengua hablada y familiar ignora esas sabias combinaciones». (8).

(Autu onezaz Vendryès-ek diona' ikusi Erderismos-en 137 g. or.).

Los euskaldunes *continentales* (jarraitzen nion nik) acuden en sus escritos con bastante frecuencia al uso de los interrogativos anafóricos. El *Guero* de Axular, sobre todo, está desde arriba hasta abajo plagado de ellos: allí hay una cantera inmensa de especímenes de frases así compuestas; convendría examinarlas para entresacar los modelos que, por ofrecer medios de expresión ventajosos, merecen ser imitados» (9).

Orra or, Axular-ek eta Oihenart ek «latin eredura euskera egokitu bearrean» ekin omen zioteneko autu ortaz' gaur ere nik zentzuzkoen derizkiotana. (*Anaforiko* itzaz eta esan naiaz zer-ikusi duketen euskal-esakuneai buruzko autuak' ikusi Erderismosen 134-tik 140 garreneragiñoko orrialdeetan).

Guzi orrezaz gaiñera' ona emen nere beste iritzi bat.

Lenbizi' ez Axular-ek ez Oihenartek, etzutela Mitxelena-k uste duan asmorik izan, ots, euskera «latin eredura egoki» tzeko asmo aurretiez erabakizkorik.

Axular-ek, ikusi dégu adibidez, nola latin eta latiñetikako izkuntzen syntaxis legeak' gain-azpikatzen, itzulipurdikatzen dituan; ori' esakune asko eta txit irakasgarri ditugunetan egíten du.

Baiña beste askotan' erdal-kutsua duten joskeraz idázten ditu esakuneak, eta au' balioko motiburik gabe. Ona ejenplu bat:

«Baldin Jainkoaren ohoreaz *ibentzen* BADA lehenbiziko manamendua'...»

Esakune au' Añibarro-k ere berdin bizkaieratzen du:

«Baldin Jangoikoaren onra *ifinten* BADA legeko lenengo aginduan...» (10).

Esakune oietan, ez Axular-ek ez Añibarro-k' eztute Azkue-ren zer ura obeitzen:

«Los afijos conjuntivos, por su oficio de poner en relación una frase con otra, deben como los mojonos ocupar el extremo de su jurisdicción.»

Beraz:

Baldin lehenbiziko manamendua Jainkoaren ohoreaz *ibentzen* BADA'...

Azkue-k dion «muga-arri» edo «mojoi» ori' euskerak, *bukatze*-mugan éskatzen du. Erderak' *aste*-mugan, onela:

«SI se pone el honor de Dios en el primer mandamiento...»

Joskera-lege jator eta bear-bearreko ori (len ere esan det) erdaldunek eztute iñoiz ere itzulikeratuko, *irri eragiteko* esakunetan izan ezik.

(7) Revue de Linguistique... Tome IX, p. 217.

(8) Darmesteter, Cours de Grammaire de la langue Française, 1.ª partie, p. 39, Paris. 1891

(9) Altube La Unificación del euskera literario, Eusko-Jakintza, Bayonne. Vol. 1.949, Tomme III, n. 2-3, p. 191.

(10) Revista Internacional de Estudios Vascos, VI, p. 52 y XIX, p. 454.

Euskal-idazleek, ordea, errez aazten dute beuron muga-lege ori, eta au' bi oker-bidez: batzuetan' muga-itza, erdera-legez, *aste*-mugan ezarrita; beste batzuetan' muga itz ori, ez *aste*-mugan ez *bukatze*-mugan jarrita, baizik-eta esakunearen beste itz batzuetan tartetuta. Auxe égin dute Axular-ek eta Añibarro-k goragoko esakune oietan; naste-bide aundiagorik ezin asmatu zezaketen.

¿Zergaitik, bi idazleok, olako erdalkeri ta naaspillak, beste esakune batzuetan ain jatorki ekiten ziotelarik?

Ona emen iritzi bat, eta errez konprenitzekoa.

Bi idazle oiek, beste guziok bezela, bi mintzaira dítuzte belarrietan barrena sartuak: eskuikoan' euskal-jatorra, guraso zaarretatikoa; ezkerrekoan' erdal-izketan, eta batez ere erdal-irakurketan eta eskoletan kutsatutakoa. Or dúkegu gaitzaren sustraia.

Añibarro-k, adibidez, bere Lora Sorta Espirituala' Aita Palacios-en liburutik éuskeraratu zuan, berak autortzen duanez; órra-bada, eta traduzio utsa zualako' burutik eta oiñetaragiño, erdal-joskeraz josita ídatzi zuan. Ordea, beste idatz-lan batzuetan' (adibidez Curutze Santearen, Aita gure ta Ave Mariaren ganeko erakusaldiak izentatu liburuan) erdal-ispilluak urriñagoz edo ain-gabez ziardualarik' Añibarro-k, bere euskera, askoz ere jatorrago ta txukunago ágertzen digu.

Axular-en Guero-ko idatz-zatietan aurkitzen ditugun gisa-bereko gora-berak ere ¿ez ote litezke berdintsu esplikatu?

Orra or arrazoizko dirudian iritzia.

Mitxelena jaunak ordea, nire iritziak makaltzeko-edo' Axular-en eta Oihenarte-ren bidez, onako zerok erákutsi nai litukeala dirudi:

1.<sup>o</sup> Nik nagusitzat eta jarraitu berrezkotzat ditudan euskal-syntaxis legeok' bi idazle famatu oiek eztituztela obeitzen.

2.<sup>o</sup> Legeok aintxiña-aintxiñako dirala uste izatea «uste erdi-ustela» datekealarik' or dégula, ordaiñez, Axular-en eta Oihenarte-ren euskera, *benetan*, eta ez *uste utsez*, aski zaar dukegun euskera.

3.<sup>o</sup> Direlako legeok, «zenbait dialekturenak baizik» eztirala egiztatzeko' orra or sortz-aldeko euskaldun-maixuek zer irakasten diguten.

4.<sup>o</sup> ¡Gora, beraz, sortzaldetarrok «latin eredura» egokitu (ta aberastutako euskera! Lenbiziko iru puntu oik, luzeki erantzunak ditudalarik' gakizkion, orain 4.<sup>o</sup> orreri. Sortzaldeko euskal-literaturari buruz, Mitxelena jaunak ditukeaneko iritzi oik' ango idazleek, gaur, egiztatu ez, baizik-eta gezurtatu egíten dizkigute.

Sortzaldeko idazlari ta gramatikalari goienetako batek' Arotzarena jaunak' erdal idazkiak euskerara ongi itzultzeko arauéz ékin dio, oraintsu. Eta itzultze lan ortan arduratzen diran idazleak' iru taldetan jártzen ditu. Eta *gaizkiko* talde batezaz' auxe dio:

«*Ceux qui se préoccupent d'employer des mots basques, mais ne savent pas se déprendre de syntaxe romane (...). Dans ses traductions, les mots son basques, mais la tournure est souvent latine*» (11).

Or du Mitxelena adiskideak: «latin eredu»zko euskera orreri, guk, sartzaldeko euskaldunok, musin geiegi egiten badiogu' sortzaldekook ere eztute maiteegi.

### Bukatzeko

Amaitzera noan idatz-lan ontan agertu dedan guzia' emen baiño osokiago, argiago, zeatzago ta ordenatuago idatzia dét zenbait liburu edo irakurgaitan, batez ere, onako oietan: *La Vida del Euskera*, *La Unificación del Euskera Literario*, eta gaurko ontan geien aipatutako *Erderismosen*.

Irakurgai oietan' argi ta proba ugariz erakutsia dét, gaurko exkax ontan laburki egiztatu nai izan dedana:

«Euskeraren bizitzari ta aurrerapideari dagozkion lanetan' ni enaizela lege-estu zalea».

Itz garbiak eta gramatika-lege zaarrak' maitatu, obe-etsi ta iraun-arazten alegindu, erri-izkeran aski indar duten artean; baiña erri-izkerak utzi ta aldatu baditza' ortan ere obeitu, geien-geienetan beintzat, erri-izkerari.

¿Beste biderik jarraitzen ál dute ba, erri aurrerenetariko *Izkel-zaindiek*?

Beste autu arezaz ere' au da, «erri-izkuntza» eta «literatur-izkuntza» oso ezberdiñak diralako autu arezaz ere' ezte ízan emen gauza berririk esan bearrik. Ogi urte pasatuak dira *La Vida del Euskeran* autu orrezaz nere iritziak agertu nituala, ta gaurko idatz-lan au bukatzeko' orduko idatz zati bat emen kopiatzea det egokien:

«El respeto y acatamiento debidos al euskera popular no significa, como he dicho antes, que no se debe procurar su superación por medio de la literatura. He ahí una distinción fecunda, valiosa y de buen sentido: el literato debe buscar, no el purismo estéril y agotador, sino la riqueza de los medios de expresión, provocando la germinación de aquellas palabras y formas gramaticales que están en el pueblo a flor de labios y que no acaban de brotar; pero esto implica precisamente la necesidad de una vinculación o compenetración estrecha e íntima de ambos lenguajes: el literario y el popular.» (12)

Azkenik, gaizki esanak parkatu, Mitxelena adiskidea.

1.955-VII-16

S. ALTUBE.

